

IRAKASLEENTZAKO ESKULIBURUA EZAGUTU NAFARROAKO MEATZARITZA

MINERÉTICA

Meatzaritzari eta mineraleri buruzko jakintza hedatzeko ekimena.

Nafarroako meatzaritzari buruzko informazio gehiagorako:
mineria.navarra.es

Unitate didaktiko hau Galiziako Meatzaritza Ganberak sortutako materialetan oinarritzen da

HAUR
HEZKUNTZA



ZER DA MINERETICA?

Meatzaritari eta mineralei buruzko jakintza hedatzeko ekimen bat da. Horretan elkarrekin egiten dute lan, alde batetik, Nafarroako Gobernuko Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak eta, beste aldetik, Nafarroako meatzaritzako sektoreak. Honako hauek ordezkatzen dute meatzaritzako sektorea: **AEMINA** (Nafarroako Meatzaritzako Enpresa Elkarteak), Nafarroako **AFARIME** (Agregakinen Fabrikatzaileen eta Meatzeetako Erauzketaren Industriaren Elkarteak) eta arloko enpresa nagusiak.

MINERETICAren helburua da meatzaritzako sektoreak gizartearen duen eginkizuna hedatzeko ekintzak gauzatzea, baliabide mineralak eguneroko bizitzan erabiltzen direla aditzera ematea, horretaz kontzientziatu eta sentsibilizatzea herritarrak, eta erauzketa enpresen onarpena eta haiekiko konfiantza areagotzea, baita horiek etorkizun jasangarriaren duten garrantzia erakustea ere.

SEKTORE ESTRATEGIKOA

Baliabide geologikoak dira lurretik zuzenean erauzten diren ondasun natural guztiak. Jabari publikoko materialak ditugu, gure aberastasunaren zati direnak, eta lehengai erabilienak dira industriaren zati handienera, energiaren ekoizpenean eta eraikuntzan.

Nafarroako meatzaritzak modu **ARRAZOIZKOAN, ORDENATUAN ETA ERAGINKORREAN** ustiatu behar ditu baliabideak, ingurumenari ahalik eta inpaktu txikiena eragiteko. Askotan, baliabideen ikerketa eta ustiapena onura publikokotzat jotzen dira, eragin handia baitute enplegu sorreran eta jarduera ekonomikoan. Ekimen pribatuak gauzatzen ditu jarduera horiek, emakiden edo baimenen bidez eta Administrazioaren ikuskapen eta kontrol zorrotzen pean.



HARTZAILEAK



Jardueren hartzaileak Haur Hezkuntzako ikasleak eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloak dira.

UNITATE DIDAKTIKOAREN DESKRIBAPENA



Argazkien eta marrazkien bidez, deskribatuko da zein den meatzeetan gauzatzen den lana, zein diren erauzten diren mineralak eta zertarako erabiltzen diren horiek. Proposatutako jarduerari esker, ikasleek jakinen dute zer ekarpen egiten dion meatzaritzak pertsonen eguneroko bizitzari.

Gainera, haurrek aukera izanen dute meatzaritzaren arloa ezagutzeko; horrela, jakinen dute zer diren mineralak eta meatzeak, zer makineria erabiltzen den lan egiteko, eta zein diren beren eguneroko bizitzan erabiltzen dituzten eta meatzeetatik datozen produktu guztiak.

HELBURU DIDAKTIKOAK



- Ikasleei modu erraz eta atseginean azaltzea zer diren meatzeak.
- Jakitea zer diren mineralak eta nondik erauzten diren.
- Azaltzea produktuak zertarako erabiltzen diren eguneroko bizitzan.
- Deskribatzea zein diren meatzaritzako ustiatzearen leheneratzeko prozesuak.